

# INDAR SINDIKALA ETA FEMINISTA BATUZ, ERASOEI AURRE EGIN!

¡Estamos en alerta! En situación de emergencia social, aunque algunos quieran hacernos creer que esto no es más que una crisis cíclica y pasajera propia de un sistema que hace aguas de vez en cuando. Y aunque nos den tentaciones de pensar en ello, no podemos obviar el continuo proceso de empobrecimiento y aumento de desigualdades sociales que estamos presenciando. Todo ello afecta a toda la población en general, pero sobre todo a las mujeres, de forma específica y de manera invisible. En el juego irónica de "a ver quién gana en precariedad", la variable de género es imprescindible.

Ante las políticas de shock, de miedo y de intentos de paralizar a las personas, a los colectivos organizados y a la clase trabajadora en su conjunto, desde ELA reivindicamos: ¡Organízate y lucha! Lo decimos en las empresas, en nuestro campo de batalla central, aunque sin perder de vista y en conexión permanente con las respuestas ciudadanas y de los movimientos sociales que vienen exigiendo también un cambio radical de este sistema capitalista y patriarcal.

Y es cierto, si no nos organizamos estamos vendidos/as, y de esto las mujeres son grandes conocedoras. La clase trabajadora en su conjunto está enfrentando tremendas embestidas y ello exige una reorganización y reforzamiento de los instrumentos de defensa y acción que tenemos en mano en el sindicato: principalmente, la negociación colectiva y la movilización social, entre otros.

Así, este 8 de marzo, las mujeres y los hombres volveremos a salir a las calles y a reivindicar en los centros de trabajo y en las plazas públicas, la necesidad de defender la igualdad de oportunidades para hombres y mujeres. Para recordar también que la mitad de la población, las mujeres y las luchas por sus derechos, tienen que estar en el centro de los debates y de las propuestas reivindicativas

ante la oleada de ataques y recortes que no hacen más que aniquilar derechos y precarizar aún más nuestras vidas.

No hay fórmulas únicas ni luchas en solitario que puedan erradicar las desigualdades estructurales existentes, y lo cierto es que todas las luchas relegadas a un segundo plano, como ha sido históricamente el feminismo y la lucha por los derechos de las mujeres, tienen mucho que decir y aportar en la transformación social a la que aspiramos.

La lucha por la igualdad real de todos y todas se cruza con la lucha de clases, con la lucha contra el racismo y la xenofobia, la homo-lesbo-transfobia y/o cualquier eje o movimiento crítico que cuestione el orden establecido. Por lo tanto, aunque tendamos a parcelar y a jerarquizar las luchas, no nos queda otra que acompañarnos y encontrarnos aunque el camino no esté exento de dificultades.

Por todo ello, desde ELA en este 8 de marzo llamamos a la organización y la lucha en los centros de trabajo y en particular reconocemos las luchas que las mujeres están llevando a cabo en el día a día en sus trabajos remunerados y no remunerados. Además, insistimos en la necesidad de vincular nuestras luchas con otros colectivos y movimientos sociales que como el feminismo también quieren cambiar de raíz el orden social y económico imperante.

**¡Organízate y lucha!**

**ELA**  
**EUSKAL SINDIKATUA**

# INDAR SINDIKALA ETA FEMINISTA BATUZ, ERASOEI AURRE EGIN!

Alerta egoeran gaude! Larrialdi sozialeko egoera batetan murgilduta gaude, batzuk esan arren krisi hau noizbehinka huts egiten duen sistema baten gorabehera zikliko eta irangankor bat dela. Eta horrela pentsatzeko tentazioak baditugu ere, ezin dugu ahantzi egun ikusten ari garen etengabeko pobretze prozesua eta desberdintasun sozialen igoera. Honek guztiak biztanle guztiei eragiten die, baina bereziki emakumeei, era espezifiko eta ikusezinean. "Prekariatatean nork irabazten duen" joku ironikoan, genero aldagaia ezinbestekoa da.

Shock politikak, beldurraren politikak eta pertsonak, antolaturiko kolektiboak eta langile klasea geldiarazteko egiten ari diren saiakerak ikusirik, ELAk ondorengo aldarrikatzen du: Antolatu eta borrokatu! Hori diogu enpresetan, gure borroka esparru nagusian, baina bistatik galdu gabe, eta beti harremana mantenduz, erantzuten ari diren eta sistema kapitalista eta patriarkalaren eraldaketa erradikala eskatzen duten hiritar eta mugimendu sozialekin.

Eta halaxe da, ez bagara antolatzen salduta gaude, eta honetaz emakumeak ezagupen handia daukate. Langileklasea bere osotasunean izugarrizko erasoak jasaten ari da, eta honek bultzatu egiten gaitu sindikatuak bere esku dauzkan defentsa eta ekintza tresnak berrantolatzera eta berrindartzera: nagusiki, negoziazio kolektiboa eta gizarte mobilizazioa.

Horrela, aurtengo martxoaren 8 honetan, emakumeak eta gizonak berriz aterako gara kalera, eta berriz aldarrikatuko dugu gure lantokietan zein kalean emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren beharra. Berriz gogoraziko dugu biztanleriaren erdiak -emakumeak eta berauen eskubideen aldeko borroka- eztabaida eta aldarrikapen proposameneren erdigunean egon behar dutela momentuan bizi ditugun eraso eta murrizketak gure eskubideak suntsitu eta gure bizitzak gero eta

gehiago prekarizatzen dituzten heinean.

Ez dago formula bakarrik, ezta bakarkako borrokarik ere, egiturazkoak diren desberdintasunekin bukatuko duenik, eta egia da ere bigarren maila batetara bazterturiko borrokek (historikoki feminismoa eta emakumeen eskubideen aldeko borroka izan diren bezala), asko esateko eta emateko dutela nahi dugun eraldaketa sozialen prozesuan.

Zilegi den gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko borroka, ezarritako ordena zalantzan jartzen duten bestelako ardatz kritiko desberdinekin uztartzen da; hala nola, klase-borrokaekin, arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokaekin, homo-lesbo-transfobiaren aurkako borrokaekin, edota bestelako ardatz eta mugimendu kritikoekin. Beraz, borroka hierarkizatu eta sailkatzeko joera badugu ere, bidelagun izan behar dugu, bidea zailtasunez betea dagoela jakinda ere.

Horrenbestez, ELAtik aurtengo martxoaren 8an, lantokietako antolakuntza eta borrokarako deialdia luzatzen dugu, eta bereziki, emakumeak beraien soldatapeko eta ez soldatapeko lanetan egiten ari diren borrokei aitortza ematen diegu. Gainera, gure borroka feminismoaren moduko beste kolektibo eta mugimendu sozialen borrokekin bat egiteko beharra nabarmendu nahi dugu, agintean den ordena ekonomiko eta soziala errotik aldatzeko.

**¡Organízate y lucha!**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA